

Hainbat proposamen landu ditu Kultura Sailak

Aukera-berdintasuna garatzeko kulturaren bila

Emakunde sortzeari buruzko Legeak gizonezkoen eta emakumezkoen arteko benetako eta egiazko berdintasuna eragozten edo zailtzen duten oztupoak ezabatzeko asmoz Emakundek landutako Ekintza Plana onartzera behartzen du Eusko Jaurlaritzak legegintzaldi bakoitzaren hasieran, Planak Euskal Autonomia Erkidego osoan indarra izan dezan.

Euskal Autonomia Erkidegoko Emakumeentzako Ekintza Positiboko Planaren (EEEEPP) helburuetarik bat da euskal administrazioak aukera berdintasunen alde egingo duen lanaren tresna antolatzailea izatea. EEEEEPPa departamentuetako planen bidez gauzatzen da, besteak beste, eta urteroko programak hartzen dituzte barne.

2001. urteko ekintza orokorrak

Kultura Saila ere 2001. urtean aurrera eraman behar dituen programen diseinuan Plan honen edukiak sartzen ari da, eta sailburuordearen zirkularrekin batera, Plan hau lurralde-unitate guztiei, HABEri, SHEEri, EITBri, Euskadiko Orkestra Sinfonikoari eta Kultura Sailari atxikitako kide anitzeko organoei helaraztea onartu du.

Beste ekintza orokor askoren artean, berriz, kultura eta kirol planifikazioan generoaren ikuspegia sartzen ikasteko prestakuntza-mintegia antolatzea onartu du. Kultura Sailak HAAEri eskatuko dio mintegi hori antolatzeko.




Hezikidetzari buruzko prestakuntza-mintegia ere eratuko du HABEko irakasleekin batera eta deialdietan hizkuntzaren erabilera sexista galarazten are gehiago arduratuko da.

Ekintza zehatzak

Aukera-berdintasuna garatzeko kulturaren bila hainbat ekintza zehatz ere bideratuko ditu Kultura Sailak aurrean eta, ekintza askoren artean, aisialdiko eskolen material, programa, eduki, ekintza eta baliabideetan generoaren ikuspegia sartuko du. Bestalde, sailak sustatu edo diruz laguntzen dituen arte, literatura eta bestelako sariketako epaimahaietan, hala nola arte edo kultur ondareak erosteko eskumena duten organoetan, gizonezko eta emakumezkoen parte hartzea orekatuko du, parekidetasuna helburu. Era berean, emakumeek euskal ondarean eta kulturaren eginiko ekarpen historikoa jakitera emango du Bidegileak argitalpenaren bidez.

Bistan da emakumezkoen eta gizonezkoen egoeraren azterketa kontuan hartuta, zenbait aurrerapen gertatu direna. Aurrerapenak, ordea, handiagoak izan dira eremu batzuetan beste batzuetan baino. Emakumezkoen parte hartzea gero eta handiagoa da politikan eta erabakiak hartzeko beste eremu batzuetan; aldiz, desorekak daude alorrik garrantzitsuenetan, hala nola etxeko lanen banaketa, bereizketa prestakuntzan eta lanean, egoera ekonomiko larria, tratu txarrak eta eraso sexualak...

Kultura Sailaren helburu da emakumei kulturaren arlo guztietan sartu eta parte hartzeko bide zabal ematea. Horregatik bideratu ditu adibide gisa aipatu diren ekintza guztiak.



Euskararen Berripapera zure etxean doan jaso edo ezagunen bati bidaltzea nahi baduzu, idatzi helbide honetara:

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Donostia-San Sebastián, 1
01010 Vitoria-Gasteiz (Araba)
Tel.: 945 01 81 16
e-posta: l-sosoaga@ej-gv.es

Euskaraz Gaztelaniaz

Izen-deiturak:

.....

Helbidea:

.....

Herria:

Kodea:

Lurraldea:

Tel.:

e-posta:

EUSKARAREN Berripapera

aurkibidea

- 1 • Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia udaletan

- 2 • **PERTSONAJEA:**
Arantxa Urretabizkaia
- **LABURRAK:**
2001eko ikerkuntzarako Euskadi saria
Harri Potter eta sorgin-harria
- **AGENDA:**
Eremu Urriko Hizkuntzen Nazioarteko Biltzarra Galizian

- 3 • Euskaltzaindiaren Nazioarteko XV. Biltzarra
- Gorrentzako euskara ikastaroa Zarautzen

- 4 • Aukera-berdintasuna garatzeko kulturaren bila

EAEko udaletan garatzeko moduko 10 plan-eredu egin dira Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia udaletan

1 999ko abenduaren 10ean Eusko Legebiltzarrak Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia (EBPN) onartu zuen. Horrez gain, EAEko hiriburu eta hiri handietako udalei euren hizkuntza-normalizaziorako plana gara zezatela eskatu zien. Hori kontuan hartuta, Euskararen Aholku Batzordeak 2000ko lan-egitarauan, hiriburu eta hiri handietan ez ezik 5.000 biztanle gorako udalerrietan ere EBPN garatzeko oinarritzko azterketa eta proposamena egitea hobetsi zuen.

Hortaz, Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia gidari, udalek euskararen erabilera areagotzeko lanetan gida eta erreferentzia egokitua izan dezaten, EAEko udaletan garatzeko moduko 10 plan-eredu egin dira, bi parametroi begiraturik: udal bakoitzaren biztanle-kopurua, 1996ko Erroldako datuen arabera, eta euskaldun-kopuruaren portzentajea. Horrela, eredu hauen barne EAEko biztanleriaren gehiengoa hartu da kontuan.

Lanaren metodologia

Lan honen abiapuntua EBPN bera izan da; bertan, hiru helburu estrategiko eta oinarritzko 91 neurri ditugu, 17 esparrutan banaturik. Horiek banan-banan ikusi eta aztertu dira eta udaletan garatzekoak diren 30 neurri aukeratu eta 20 helburu zehatz finkatu dira.

Ondoren, neurri horiek garatzeko ekintzak finkatu dira, esparruz esparru. Guztira, 120 ekintza proposatu dira, lehentasunen arabera hurrenkeran jarri direlarik. Azkenik, esparru eta ekintzen lehentasun horiek eraman dira aurrekontuetara.

Helburu nagusia


Proposaturiko udalerriari begirako ekintzen helburu nagusia da hiztunek euren hizkuntza-gaitasuna sendotzea edota euskara ikastea; harreman-sare euskaldunak egituratzen laguntzea euskaraz egiteko erraztasuna sendotzeko; eta euskarazko produktuen eta zerbitzuen gaineko informazio zehatza bideratzea, horien eskaria gero eta handiagoa izan dadin.

Udalaren barrura begirako jardura gisa Herri-Administrazioetan Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plana onartzea eta garatzea da; horretarako, udalen euskara zerbitzua eratu edota sendotu beharko da.

Plana burutzeko laguntza

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak, EUDELen laguntzaz, zehatz-mehatz aurkeztu dizkie udal guztiei ereduak eta erabilitako metodologia bera ere, prozesu osoa hasieratik berriki eta berretsi nahi badute horretarako aukera izan dezaten. Prozesua burutu ondoren, udalak EBPN udal mailan garatzeko bere plana izateaz gain, urteko kudeaketa-plana ere izango du.

Bestalde, udalek Eusko Jaurlaritzarekin eta Foru Aldundiarekin banan-banako harremana izateko aukera izango dute, baita giza baliabideak antolatzeko eta ekintza zehatzak bideratzeko laguntza ere.



Laburrak

2001eko ikerkuntzarako Euskadi saria

Juan Uriagereka hizkuntzalaria izan da aurtengo "Euskadi" Ikerketa sariaren irabazlea. Uriagereka ekonomilari izatekoa zen baina zerbakiak asperturik, Connecticut-a jo zuen letra arloko ikasketak burutzeko asmotan. Egun, hizkuntzalaritza irakasle da EEBBetako Maryland Unibertsitatean, berrogei doktorego-tesi baino gehiago zuzendu ditu eta han eta hemen barreiatu ditu hizkuntzari buruzko tesiak.

Harry Potter eta sorgin-harria IBBYko ohorezko zerrendan



IBBY (International Board on Books for Young People) erakundeko ohorezko zerrendan da *Harri Potter eta sorgin-harria* liburua. IBBY erakundeak nabarmendu du Iñaki Mendigurenek egin duen Harry Potter-en bildumako lehen liburuaren itzulpenaren kalitatea. Orain bi urte John Ruskin-en *Urrezko Ibaiaren Erregea* ipuina sartu zuten zerrenda berean, Asun Garikanok itzulirik.

Agenda

Eremu Urriko Hizkuntzen VIII. Nazioarteko Biltzarra, azaroan Galizian

Galiziako Xuntako Hizkuntza Politikarako Zuzendaritza Nagusiak, 1999an Bilbon antolatutako VII. Biltzarrean hartutako konpromezuari erantzuteko, Eremu Urriko Hizkuntzei buruzko VIII. Nazioarteko Biltzarra eratu du aurten. Biltzarraren gai nagusia honako hau izango da: Hizkuntza eta Hezkuntza Politikak Europar Batasunean.

2001eko azaroaren 22tik 24ra izango da, Santiago de Compostelan, Galiziako Biltzar eta Erakusketa Jauregian.



PERTSONAJEA

Arantxa Urretabizkaia

Rikardo Arregi sari nagusiaren irabazle *Zabalik* astekariko elkarriketengatik

Arantxa Urretabizkaia eta Ander Izagirek irabazi dituzte aurtengo Rikardo Arregi Kazetaritza lehiaketako sari nagusia eta kazetari berrien saileko saria. Lehenak, *Zabalik* astekarian argitaraturiko elkarriketengatik irabazi du saria. Bigarrenak, astekari berean idatzitako kronikengatik. Xipri Arbelbidek ohorezko aipamenari dagokion saria bereganatu zuen, besteak beste *Gure Irratia* eta *Herriz herri* aldizkaria sortzen egindako lanarengatik. Josu Juaristik, berriz, epaimahaiaren aipamen berezia jaso zuen Europar Batasunari buruz *Gara* egunkarian osatutako lanarengatik. Antolatzaileek, bestalde, gogoan izan zituzten *Euskal Herria lau haizetara* saioa egiten ari zirela istripuz hil ziren kazetariak.



ZALDI ERO

Sari nagusiaren irabazlearen lanari dagokionez, epaimahaiak adierazi zuen Arantxa Urretabizkaia kontalari biren lana aurkezten diola irakurleari, eta ahozkotasuna nabarmentzen dela idatzizko produktu izanagatik ere.

Sariagatik eskerrak ematean, elkarriketatuak jokoan gogoz sartu zirela azpimarratu zuen, haien jarrerak lanaren kalitatean duen garrantzia azpimarratuz.

Arantxa Urretabizkaia (Donostia, 1947) idazle zaildua da lehendik ere. Aldizkarietan kolaboratzen hasi zen, eta poesia idazten. *San Pedro bezperaren ondokoak* argitaratu zuen 1972an. Hala ere, lehen nobelak eman zion izena: *Zergatik Panpox* (1979). Geroztik, *Aspaldian espero zaitudalako ez nago sekula bakarrik*, *Saturno*, *Aurten aldatuko da nire bizitza* eta *Kuaderno gorria* literatur lanak ditu argitaraturik.

Euskaltzaindiaren Nazioarteko XV. Biltzarra

Irailaren 17tik 22ra egingo da Bilbon eta Baionan “Euskalgintza XXI. mendeari buruz” lemapean

Euskaltzaindiak XV. Biltzarra egingo du irailean Bilbon eta Baionan. Bertan, hiru euskaltzain eta ikerlari handi omenduko dituzte: Resurreccion Maria Azkue (1864-1951) eta Julio Urkixo (1871-1950), beren heriotzen 50. urteurrenean, eta Piarres Lafitte (1901-1985), bere jaiozako mendeurrenean.

Biltzarrak *Euskalgintza XXI. mendeari buruz* du lema eta euskararen iraganaz, orainaz eta etorkizunaz gogoeta egiteko asmotan eratu du Euskaltzaindiak.

Hainbat arlo aztergai: hizkuntza ereduak, hiztegi-gintza, hizkuntzaren historia...

XV. Biltzarrak bi egoitza izango ditu, bata Bilboko Euskalduna Jauregia, irailaren 17tik 19ra, eta Baionako Fakultatea hilaren 20 eta 21ean. Irailaren 22an, berriz, Lafitteri omenaldia eskainiko baitzaio, Uztaritzen izango da bilkura.

Hiru arlo berezi landuko dituzte Bilboko jardunaldietan. Lehenengo egunean, hizkuntza ereduak aztertuko dituzte; hizkuntza estandarra eta aldaerak, alegia. Bigarrenegun, hiztegi-gintzari buruz ariko dira, corpusaren plangintzaz eta euskararen beraren normalkuntzaz ere jardunez. Hirugarren egunean, hizkuntzaren historia aztertuko dute, eta euskararen jatorriaren inguruan lantzen ari diren hipotesi berrien gainean ariko dira biltzarkideak.

Egunez egun, hiru hitzaldi eta dozena bat txosten irakurririko dira. Gainera, mahainguruak ere izango dira, *Gaurko hiztegi-gintzaren premiak eta arazoak* izango da bata, eta *Lekuko euskarak eta euskara batua: elkarren osagarri ala arerio?*, berriz, bestea. Horiekin batera, Biltzarrak irauten duen egunetan, Urkixok eta Azkuek egindako lanak erakutsiko dira Azkue liburutegian.

Baionako saioetan, gramatika eta literatura landuko dituzte, hau da, Lafittek berak landu zituenak. Denetara, 41 komunikazio aurkeztuko dituzte bi arloetan. Saioen helburu da XXI. mendearen hasiera honetan gramatika eta literatura ikerketetan euskal estudioak zertan diren azaltzea.

Piarres Lafitteri omenaldia Uztaritzen

Azkenik, irailaren 22an, omenaldia egingo zaio Lafitteri, Uztaritzen, eta haren ikasle izan zirenak mintzatuko dira, lekukotasunak emanez.

Piarres Lafitte (Luhuso, 1901 - Baiona, 1985), famatu egin zen *Grammaire basque* liburua egin zuenean, Bigarren Mundu Gerra garaian. Euskal literatura eta, bereziki, euskal literaturaren historia ikertu zituen. Iparraldeko Atlas Linguistikoa lantzen ere jardun zuen. Euskaltzain izan zen Georges Lacomberen ondoren, 1949tik 1985era.



Euskaltzaindiaren Nazioarteko XV. Biltzarra

Gorrentzako euskara ikastaro aitzindaria udan Zarautzen

Zarauzko Udaleko Euskara Zerbitzuak pertsona gorrentzako euskara ikastaroa jarri zuen abian Zarauzko eta inguruko herrietako pertsona gorrentzat. Ikastaroaren helburua gorrek euskara ikasi eta euskaraz bizitzeko aukera izatea zen. Ikastaroa keinu-hizkuntzari buruz tesia egiten ari den Martha Kaperotxipi Urain irakasleak eman zuen.

Zarautzen berrogei bat pertsona gor daude eta Gipuzkoan kopurua hazten ari da. Gorrek, orain arte, ez dute euskara ikasteko inolako aukerarik izan eta horretaz jabetuta Zarauzko Udalak gorrentzako euskara ikastaroa antolatu zuen uztailaren 2tik abuztuaren 8ra.

Ikastaroa keinu-hizkuntza erabiliz burutu zen, eta, gorrek eguneroko komunikazioan erabiltzen dituzten artikulatzaileak erabiliko dira (eskuak, besoak, aurpegia eta gorputza). Edukiei dagokienez, honakoak landu zituzten: pertsonak eta familia deskribatzen, eguneroko bizitzari buruzko informazioa trukatzeko, irakurritako deskribapenak ulertzen...



MARCHA